

Normalizazio politikoaren etorkizuna

Euskal Herriaren bake bideratzea eta normalizazio politikoa etenaldi garrantzitsuan eta sakonean sartuta dago. Duela hilabete batzuk gizartean bizi genuen esperantza lainotu egin da berriro ere.

ETAk bake prozesua baldintzatu du Euskal Herriaren auzi politikoaren konponbidean. Espainiako Gobernuak ETArekin bukatu nahi du, baina ez dago prest Euskal Herriari bere etorkizuna erabakitzeko duen gaitasuna aitortzeko. Logika honetan harrapatuta gaude aspaldiko urteetan, baina honek ez du esan nahi bake eta normalizazio politikoa lortzeko baldintzak aldatu ez direnik. Euskal gizartean gauzak asko aldatu dira azken urteetan.

ETAk jarraitu lezake borroka armatua praktikatzen, baina praktika horren eragina politikoki antzua izango da. ETAk duen arazorik nagusiena ez da Espainiako Estatuarekiko gatazka gaindiezina, euskal gizarteak bizkarra eman diola baizik. Euskal gizartea ETA balio politikorik gabe uzten joan da. Deslegitimazio horrek ETAren amaiera politikoa esan nahi du.

Halere, ETArekiko gaitzespen jarrera gorpuzten joan den bitartean beste zerbaite ere gertatu da: ETA amaitzeko, eragilerik garrantzitsuenaren beraren babes falta dela ohartu da euskal gizartea. Euskal gizarteak bakearen eta normalizazio politikoaren subjekturik eraginkorrena bera denaren



DANI BLANCO

kontzientzia hartu du. Kontzientzia honen etengabeko hedapena da ETAren ziklo politikoari amaiera eman diona.

Euskal gizarteak bere etorkizunaz erabakitzeko duen eskubidea adieraztearekin batera, erabakitzeko eskubide hori lortzeko bidean subjekturik garrantzitsuenaren denaren kontzientzia hartu du baita ere. Bake eta normalizazio politikoaren subjektu izaera horren kontzientzia nagusitu egin da. Egoera honetan zerikusi handia izan dute ETAk eta Espainiako Gobernuak herri honi egin dioten ukazioak bakearen eta normalizazio politikoaren alorrean.

Euskal gizarteak bere bidean jarraitu behar du ordea; bakearen alorrean nahiz normalkuntza politikoaren bidean. Ez dira prozesu berdinak baina iturri bera dute: euskal gizartea. Euskal gizartea asko aldatu da urteotan eta honek ere baldintza berriak sortzen ditu. Halere, gizarteak bakearen eta normalizazio politikoaren aldeko dinamika martxan jarri behar du. Dinamika horren azken fasea gizarteak berak zer nahi duen adieraztea izango da. Eusko

Jaurlearitzako lehendakari Juan Jose Ibarretxek legealdi honetan kontsulta demokratiko bat egiteko ahalegina iragarri du. Kontsulta beraz egin egingo da. Kontsulta horretara bidera gaitzakeen gizarte baldintzak sortzea da abertzaleon erronka politikoa, txikikerietan galdu gabe. ■

«
Gizarteak bakearen eta normalizazio politikoaren aldeko dinamika martxan jarri behar du. Dinamika horren azken fasea gizarteak berak zer nahi duen adieraztea izango da
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Zuten helburutzat. Hondar zortzi hilabetetan aritu izan dira guztiak elkarrekin. Barajasek hautsi zuen akordioa, publiko egin behar zuten adostasuna. Hori, PNBk alde aurretik ezarritako baldintza zuen. Inor ez zen harritu, inor ez zuen tronparazi. Esandakoa bete egin zuen. ABk, ohi bezala batzarrean erabaki zuen Batasuna eta EArekin jarraitzea, PNBk proposatutako AB-EA-PNB balizkoak boz bakar bat ere izan ez zuelarik. PNBko Aitor Arandiak ez zuen onartu, ABren erabakia ez zuela ulertzen publikoki adieraziz. Eta pertsonalki ezagutzen ez dudana gizonaren erreakzioak harritu

EH Bai

egin ninduen. Izan ere, bere adierazpenak ABren militantziaren berri ez duela erakusten digu, Iparraldeko politiko baten kasuan biziki larria dena bestalde. Zeren nik dakidenez, PNBk EH Bai abandonatzeko erabakia ez du Iparraldeko militantziaren batzarrik hartu, EBBk Sabin Etxean bilduta baizik. Eta nik dakidenez Iparraldeko PNBko zenbait ez dago oso pozik EBBren esku-hartzeaz, nahiz eta mutu bailiran geratu. Eta ni honek ez nau harritu, Aitor jaunak ABren kasuan ez bezala nik bai baitut EBBrekiko beren menpekotasunaren berri, inoiz publiko egiten ez duten beren murrizketaren berri. Libre izatea ez da merke. ■